



## 10. AKTA

ACTA N.º 10

### Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea

### Comisión de Servicios a las Personas

**Batzar mota:** Ohikoa

**Sesión:** Ordinaria

**Eguna:** 2024-04-15

**Día:** 15-04-2024

**Ordua:** 10:28

**Hora:** 10:28

**Tokia:** Loretope Aretoa

**Lugar:** Sala Loretope

**Batzordeburua:** Cristina Lagé Manich

**Preside:** Cristina Lagé Manich

#### Etorritakoak:

#### Asistentes:

#### Batzordeko kide diren zinegotziak:

#### Concejales y concejalas miembros de la Comisión:

Jon Insausti Maisterrena

Jon Insausti Maisterrena

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Maria Jesús Idoeta Madariaga

Martín Ibabe Eceiza

Martín Ibabe Eceiza

Juan Ramón Viles Mitxelena

Juan Ramón Viles Mitxelena

Juan Karlos Izagirre Hortelano (*10:41ean bertaratu da*)

Juan Karlos Izagirre Hortelano (*se incorpora a las 10:41 h*)

Markel Ormazabal Gaztañaga

Markel Ormazabal Gaztañaga

Izar Hernando Ibero

Izar Hernando Ibero

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Jorge Mota Iglesias

Jorge Mota Iglesias

Arantza González García

Arantza González García

#### Beste zinegotzi batzuk:

#### Otros/as concejales/as :

Nekane Arzallus Iturriza (*10:55ean bertaratu da*)

Nekane Arzallus Iturriza (*se incorpora a las 10:55 h*)

Itziar Iturri Arrazola (*10:56an bertaratu da*)

Itziar Iturri Arrazola (*se incorpora a las 10:56 h*)

Eneko Goia Laso alkate jauna (*11:06an bertaratu da*)

El Alcalde, Eneko Goia Laso (*se incorpora a las 11:06 h*)

**Idazkaria:** Ane Miren Irizar González, Idazkariak eskuordeturik.

**Secretaria:** Ane Miren Irizar González, por delegación de la Secretaria General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL



ekin diote:

**1.- 2024ko martxoaren 11n izandako bileraren  
akta irakurri eta onartzea, onztat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 9. akta, 2024ko martxoaren 11n egindako bilerari dagokiona.

**2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua,  
Donostian Korrikari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Udaleko Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Korrikak Donostian egindako bideari buruz, Zerbitzu Orokoren Batzordean aztertzeko.

**JUSTIFIKAZIOA**

Joan den astean, Korrikak gure hiria zeharkatu zuen. Lasterketa euskararen aldeko ekitaldi bat da, eta bertan ikastola ugarik, seme-alabak dituzten familiek eta lagun-taldeek parte hartzen dute. Bada, lasterketa horretan, beste behin erakutsi dira ETAko presoen argazkiak eta kartelak, eta baita presoak hurbil daitezela eskatzeko bandera ugari ere.

ETAren biktimekiko sentsibilitate falta eta umiliazio hori eta hiltzaileen gorespina onartezinak dira, eta uste dugu Udalak eta AEK-k kondenatu eta debekatu egin beharko luketela hori. Denak ez du balio, eta parte-hartzaile asko daudela eta ezin direla kontrolatu esatea ez da nahikoa aitzakia; horrek frogatzen du ez dagoela inolako asmorik Korrikaren edizio bakoitzean gertatzen den terrorismoaren gorespen hori kontrolatzeko.

ETAren terrorismoaren biktimekiko eta haien senideekiko irain horrek, gainera, Udalaren "babesa" du; izan ere, urtero *zintzo* ordaintzen ditu dagozkion kilometroak, zinegotziek euskararen aldeko lasterketa horretan parte har dezaten.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duenak aurkezten duen

**INTERPELAZIOA**

1. Zergatik ez zen eragotzi argazki eta kartel horiek erakustea?

DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 11 de marzo de 2024.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 9, correspondiente a la sesión celebrada el día 11 de marzo de 2024.

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP,  
sobre el paso de la Korrika por la ciudad.**

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicios a las personas, sobre la Korrika a su paso por San Sebastián.

**JUSTIFICACIÓN**

La pasada semana la Korrika atravesó nuestra ciudad. En la carrera, que se supone es un acto en favor del euskera en el que participan numerosas ikastolas, familias con hijos y grupos de amigos, se volvieron a exhibir fotos y carteles de presos de ETA, así como multitud de banderas pidiendo el acercamiento de los presos.

Esta falta de sensibilidad y de humillación hacia las víctimas de ETA y la exaltación de sus asesinos es intolerable y entendemos que desde este Ayuntamiento, así como desde AEK se debería condensar y prohibir. No todo vale, y las excusas de que son muchos los participantes y que no se pueden controlar no son suficientes, y demuestran que no hay ninguna intención de controlar este enaltecimiento del terrorismo que se produce en cada edición de la Korrika.

Esta ofensa hacia las víctimas del terrorismo de ETA y sus familiares cuenta además con el "patrocinio" de este Ayuntamiento, que cada año paga "religiosamente" los kilómetros correspondientes para que los miembros de la corporación corran en esta carrera en favor del euskera.

Por este motivo, el abajo firmante presenta la siguiente

**INTERPELACIÓN**

1. ¿Cuáles son las razones por las que no se impidió la exhibición de estas fotos y carteles?



2. Gure hiriko alkate gisa edo udal-taldeko kide gisa, jarri al zinen antolatzaleekin harremanetan argazki eta kartel horiek erakustea eragozteko?
3. Erantzuna baiezkoa bada, zer erantzun jaso zenuen?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez zenuen hala egin?
5. Nola kalifikatzen dituzue gertakari horiek?
6. Ados al zaudete euskaren aldeko jarduerarekin zerikusirik ez duten kartelak eta argazkiak erakustearrek?
7. Zenbat diru gastatu du Donostiako Udalak zinegotziek korrika egiteko kilometroak erosten edo babesten?
8. Zer dirulaguntza jasotzen ditu AEK-k urtero udal honetatik?
9. 2021ean?
10. 2022an?
11. 2023an?
12. AEKri ematen zaion urteko dirulaguntzaz gain, beste zenbatekorik jasotzen al du Korrika egiten den urteetan, lasterketa hori egiteko?
13. Nahiz eta urtero errepetitzen diren eszena horiek... Gertatutakoaren ondoren ba al duzue berriz ere lasterketa hori babesteko asmorik?
14. Ba al duzue ezer egiteko asmorik terroristen kartelak eta argazkiak erakustea eragozteko?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Borja Corominas Fisas  
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

Jon Insausti eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute.  
Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(10:41ean Juan Karlos Izagirre jauna bertaratu da)

**3.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, auzoetako jaiak antolatzeko traba administratiboei buruz.**

2. ¿Se puso en contacto, como alcalde de nuestra ciudad o algún miembro del equipo municipal, con los organizadores para que impidieran que se exhibieran estas fotografías y carteles?
3. En caso afirmativo ¿qué respuesta obtuvo?
4. En caso negativo ¿cuál fue la razón para no hacerlo?
5. ¿Cómo califican estos hechos?
6. ¿Están conformes con esta exhibición de carteles y fotos que nada tienen que ver con una actividad en favor del euskera?
7. ¿Cuánto dinero ha gastado el Ayuntamiento de San Sebastián en la compra o patrocinio de los kilómetros en los que han corrido miembros de la corporación municipal?
8. ¿Qué subvenciones recibe AEK anualmente de este Ayuntamiento?
9. ¿En 2021?
10. ¿En 2022?
11. ¿En 2023?
12. Además de la subvención anual a AEK ¿recibe ésta otra cantidad en los años que se realiza la Korrika para la realización de la misma?
13. Pese a que cada año se repiten estas escenas.... ¿Piensan volver a patrocinar la carrera tras lo sucedido?
14. ¿Piensan hacer algo para impedir esta exhibición de carteles y fotos de terroristas?

En San Sebastián, a 5 de abril de 2024

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 10:41 h se incorpora el Sr. Izagirre Hortelano)

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las trabas administrativas para organizar fiestas de barrios.**



Markel Ormazabal jaunak hurrengo interpelazioa azaldu du:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Kulturako eta Euskarako zinegotzi-ordezkarri Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

#### JUSTIFIKAZIOA

Neguko jaiak igaro diren honetan, hainbat auzotako jai batzordeek ospakizunak antolatzeko izan dituzten zaitasun berri eman digute. Batez ere, udal sailen arteko koordinazioari lotutako arazoak izan omen dira. Hori da, esaterako, Antigua auzoaren kasua. Festak atalarekin duten harremanaren harira, komunikazioan arazoak daudela eta baimenak eskuratzeko gehiegizko burokrazia bete beharra dagoela salatu dute; baita horiek digitalki egiteko baldintzak sortu dituen arazoak ere. Oro har, festak antolatzeko udal baliabide gutxi daudela diote. Soilik aulkia eta mahaia; gainerakoa Jai Batzordearen kontu geratzen dela. Urtarrileko jaietan Udalak ez omen du puntu morerik jarri Antiguan, nahiz eta aurretik jarriko zuela esan zuen. Espazio publikoan kaleak mozteko ere arazoak izan dituzte eta azkenaldian jai batzordeko kideek beraiek egin behar dutela esan diete, horretarako txalekoak eman zaizkielarik.

Auzoetako jaietako tokian tokiko komunitateari eta hiria berari egiten dioten ekarprena aintzat hartuta, Donostiako Udalak horien bideragarritasuna ziurtatzeko bitartekoak jarri beharko lituzke, artean prozedurak erratzuz.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak auzoetako jaiak antolatzeko prozedura eta baliabide egokirik eskaintzen? Udara gainean dugu; baita, beraz, uda sasoiko festak ere; asmorik ba al du Udal Gobernuak auzoetako jai batzordeekin batera aipatu arazoak ekiditeko lan egiteko?

El Sr. Ormazabal Gaztañaga presenta la siguiente interpellación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal de Cultura y Fiestas Jon Insausti Maizterrena, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

#### JUSTIFICACIÓN

Una vez pasadas las fiestas de invierno, las comisiones de fiestas de diferentes barrios nos han explicado las dificultades que han tenido para organizarlas. Se refieren sobre todo a problemas de coordinación entre los distintos departamentos municipales. Este es el caso, por ejemplo, del barrio del Antiguo. Respecto a la relación con Fiestas, denuncian problemas en la comunicación y excesiva burocracia en la obtención de permisos, así como los problemas derivados que han surgido por la obligatoriedad de realizar dichos trámites digitalmente. En general, señalan que hay pocos recursos municipales para organizar las fiestas. Sólo sillas y mesas, quedando el resto a cargo de la comisión de fiestas correspondiente. Afirman también que en las fiestas de enero el Ayuntamiento no colocó puntos morados en el Antiguo, aunque previamente anunció que los instalaría. Han tenido también problemas para cortar calles en el espacio público y últimamente a los miembros de las comisiones de fiestas les han comunicado que son ellos mismos quienes deben encargarse del corte de calles, para lo cual se les han entregado chalecos.

Teniendo en cuenta la contribución de las fiestas de los barrios a la comunidad local y a la propia ciudad, el Ayuntamiento de San Sebastián debería proporcionar medios suficientes para asegurar su viabilidad, entre otros facilitando los procedimientos.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ofrece un procedimiento y medios adecuados para organizar las fiestas de los barrios? El verano está al caer, por lo que de cara a las fiestas de verano, ¿tiene intención el Gobierno Municipal de trabajar conjuntamente con las comisiones de fiestas de diferentes barrios para evitar estos problemas?



Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Jon Insausti eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Eguneroakoan grabatu dira.

**4.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako haur-eskolen egoerari buruz.**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, haurreskolen egoeraren inguruko interpelazioa egiten dio Cristina Lagé Hezkuntzako zinegotzi-delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

**JUSTIFIKAZIOA**

2023-2024 ikasturtekin aurrera doakotasuna ezarri da Haurreskolak Partzuergoan. Horrela zehazten da 5/03/2023 erabakian, martxoaren 22koan, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena, zeinaren bidez onartzen diren Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza, funtzionamendua eta haurren izen-estate araua 2023-2024 ikasturterako.

Donostiako LAB sindikatuak ohartarazi digunez, Urbia-Urdaneta, Aiete, Aitor-Egia, Intxaurrondo, Kattalin, Ategorritxo, Zuloaga eta Loiola Haurreskolak Partzuergo Publikoko haurreskoletan ez dago 2023-2024 ikasturtean familia gehiagok izena emateko aukerarik, ez baitago plaza librerik; gainera, Altza eta Landetxe Haurreskolak Partzuergo Publikoko haurreskoletan matrikulazioa topera iritsi ez bada ere, matrikulazioaren bilakaera ikusita eta dagoen marjina txikia kontuan hartuta, berehala gerta daiteke azken horiek ere plaza librerik gabe geratzea. Beraz, Donostiako haurreskola publiko ia gehienetan ez dago plaza librerik eta matrikulatzeko aukerarik, eta plaza libreraren bat gelditzten diren horietan oso gutxi dira plaza libreak.

Ohartarazpen bera jaso izan dugu auzo-auzo bizilagunen partetik, haien auzoan txikienek hezkuntza publikorako aukerarik ez izateagatik

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
Concejal del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación de las guarderías en la ciudad.**

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

"Dña. Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, en uso de la facultad que le confiere el artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a la concejala delegada de Educación, Dña. Cristina Lagé, sobre la situación de las *haurreskolas*, para que dé las explicaciones oportunas en la Comisión de Servicios a las Personas.

**JUSTIFICACIÓN**

A partir del curso 2023-2024 se ha establecido la gratuitad de los centros del Consorcio Haurreskolak. Así se determina en el Acuerdo 5/03/2023, de 22 de marzo, del Comité Directivo del Consorcio Haurreskolak, por el que se aprueba la oferta de plazas, funcionamiento y normativa y criterios de admisión de niños y niñas para el curso 2023-24.

El sindicato LAB de San Sebastián nos ha advertido de que en las haurreskolas de Urbia-Urdaneta, Aiete, Aitor-Egia, Intxaurrondo, Kattalin, Ategorritxo, Zuloaga y Loiola del Consorcio Público Haurreskolak no hay posibilidad de que se inscriban más familias para el curso 2023-2024, por falta de plazas libres; en cuanto a las haurreskolas de Altza y Landetxe del Consorcio Público Haurreskolak, aunque no se ha alcanzado el límite máximo de su capacidad, dada la evolución de la matriculación y el escaso margen existente, enseguida podrían quedarse sin plazas libres. Por lo tanto, en la práctica totalidad de las haurreskolas públicas de San Sebastián no hay plazas libres ni posibilidad de matricularse, y en las haurreskolas en las que existe cierta disponibilidad las plazas libres son muy escasas.

La misma advertencia nos han hecho los vecinos y vecinas de los diferentes barrios de la ciudad, preocupados por la falta de acceso de los



kezkatuta. Izen ere, kezkatzeko da egoera, hezkuntza publiko, doako eta euskarazko jasotzeko eskubidea higatua delako. Era berean, Donostiako Udaletik ezinbestean heldu beharreko gaia dela deritzogu, hirian haur bakar bat ere gera ez dadin hezkuntza sare publikorako sarbidea izan gabe

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez da betetzen "Haurrek lehen haurtaroko hezkuntza eta zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko duten eskubidea"?
- Zer dela eta iritsi gara hiriko haurreskola ia guztietai plaza librerik ez izatera? Zer pentsatu du Udal Gobernuak egoera honen aurrean? Zer egingo du Udal Gobernuak haurrek hezkuntza sare publikotik kanpo gelditu ez daitezen, sare pribatua beste alternatibarik gabe utziz?
- Ba al du Udal Gobernuak haurreskola bakoitzak aurten izan duen itxaron zerrendaren berri? Zenbat dira plazarik gabe gelditu diren familiak?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Izar Hernando Ibero  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Izar Hernando eta Cristina Lagé andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(10:55ean Nekane Arzallus andrea bertaratu da)

**5.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, kaiko bizilagunen beharrei eta udal portu kontseiluari buruz.**

Markel Ormazabal jaunak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Donostiako alkate Eneko Goia Laso Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz erantzun dezan.

más pequeños y pequeñas a la educación pública en su barrio. La situación es preocupante, por el deterioro del derecho a la educación pública, gratuita y en euskera. Así mismo, consideramos que es un asunto que inevitablemente se debe abordar desde el Ayuntamiento de San Sebastián, para que ningún niño o niña se quede sin acceso a la red educativa pública en la ciudad.

Por ello, la concejala abajo firmante formula la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué no se cumple el "derecho de los niños y niñas a disfrutar de una educación y unos cuidados de la primera infancia asequibles y de buena calidad"?
- ¿Por qué hemos llegado a no disponer de plazas libres en casi todas las haurreskolas de la ciudad? ¿Qué ha pensado el Gobierno municipal ante esta situación? ¿Qué va a hacer el Gobierno municipal para que los niños y niñas no se queden fuera de la red educativa pública, sin otra alternativa que la red privada?
- ¿Conoce el Gobierno municipal la lista de espera que ha tenido cada una de las haurreskolas este año? ¿Cuántas son las familias que se han quedado sin plaza?

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Izar Hernando Ibero  
Concejala del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen las Sras. Hernando Ibero y Lagé Manich, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 10:55 h se incorpora la Sra. Arzallus Iturriaga)

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las necesidades de los vecinos del puerto, y el Consejo Municipal Portuario.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.



## JUSTIFIKAZIOA

Kaiko bizilagunek hainbat administrazioren aurrean duten babesgabetasuna gai errepikakorra izan da azken urteotan. Azken aldiz, 2023ko abenduan landu genuen gaia, kaiko etxebizitzetan zuntz optikoa ez sartzearen inguruan. Orduko hartan, Udal Gobernuak bi konpromiso hartu zituen: batetik, kaiko bizilagunen egoera kontuan hartuta, lehentasunez eta premiaz lantzea kaiko eremuan bizi diren donostiarren etxeetara zuntz optikoaren zerbitzua iristeko lanak, eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Portu eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean aurreikusitakoaren arabera, Donostiako Portuko Udal Kontseilua sortzeko izapideak azkartzea, eta bien bitartean, administrazioen eta kaiko bizilagunen arteko komunikazioa errazteko bitartekoak sortzea.

Bada, zuntz optikoa dela-eta saiakerak egin, egin direla jakin badakigun arren, gaur-gaurkoz kaian ez dago horrelako zerbitzurik. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Portu eta Itsas Garraioaren Legean jasotako udal portu kontseiluen artikulua indarrean sartu da, nahiz eta gaur-gaurkoz ez dakigun Donostian halakorik sortzeko eskaerarik egin den.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak kaiko etxebizitzetan zuntz optikoa sartzea ahalbidetu? Zein egoeretan dago proiektua? Asmorik ba al du Udal Gobernuak Donostian Udal Portu Kontseilua sortzeko eskaria egiteko? Noiz? Parte hartu ahal izango dute bizilagunek bertan?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Markel Ormazabal jaunak eta Nekane Arzallus andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(10:56an Itziar Iturri andrea bertaratu da. 11:00etan Nekane Arzallus andrea irten da. 11:01ean Juan Karlos Izagirre jauna irten da)

## JUSTIFICACIÓN

La indefensión de las vecinas y vecinos del muelle ante diferentes administraciones ha sido una cuestión recurrente en los últimos años. Presentamos por última vez una interpelación sobre este tema en diciembre de 2023, sobre la no introducción de la fibra óptica en las viviendas del muelle. En aquella ocasión, el Gobierno Municipal asumió dos compromisos: por un lado, trabajar de forma prioritaria y urgente, dada la situación de los vecinos del muelle, el acceso del servicio de fibra óptica a los domicilios de los donostiarras residentes en la zona del muelle y, por otro, agilizar los trámites para la creación del Consejo Municipal del Puerto de San Sebastián, de acuerdo con lo previsto en la Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, y, entre tanto, crear medios que faciliten la comunicación entre las administraciones y los vecinos del muelle.

Pues bien, aunque sabemos que se han realizado intentos para instalar fibra óptica, a día de hoy no existen en el muelle este tipo de servicios. Asimismo, ha entrado en vigor el artículo de los consejos portuarios municipales recogido en la Ley de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco, si bien a día de hoy se desconoce si se ha solicitado su creación en San Sebastián.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha permitido introducir fibra óptica en las viviendas del muelle? ¿En qué situación se encuentra el proyecto? ¿Tiene intención el Gobierno Municipal de solicitar la creación de un Consejo Portuario Municipal en San Sebastián? ¿Cuándo? ¿Podrán las vecinas y vecinos participar en él?

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga  
Concejal del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen el Sr. Ormazabal Gaztañaga y la Sra. Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 10:56 h se incorpora la Sra. Iturri Arrazola. A las 11:00 se retira la Sra. Arzallus Iturri. A las 11:01 se retira el Sr. Izagirre Hortelano)



## **6.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, kale-hezitzaleei buruz.**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, kale-hezitzaleen figuraren inguruko interpelazioa egiten dio Cristina Lagé Gazteriako zinegotzi-delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean ahoz eman ditzen.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Gazteleku eta haurtxoko sarea dugu hirian, auzo gehienetan hedatzen dena. Bistakoa da auzo bakoitzeko haur, nerabe eta gazteek erreferentiazko gune fisikoak izatea positiboa dela oso; Donostian ez goaz bide txarretik zentzu horretan, nahiz eta noizean behin eskaintzaren balorazioa egitea ezinbestekoa den (ordutegiak, aktibitateak, parte-hartzea...).

Baina interpelazio honek haur, nerabe eta gazteen aisiaaldi eta dinamizaziorako bestelako figura bat erreparatu nahi dio, aipatutako espazio fisikoez harago. Izañ ere, hirian lehenago existitu dira kale-hezitzaleak, egun ez daudenak. Agian, garai hartan, egokia izan zen kale-hezitzaleak desagertzeko erabakia, gazteleku eta haurtxokoak indartzeko helburuaz. Ordea, erabaki hartatik denbora pasatu den honetan, berriz ere kale-hezitzaleen figurari begira jartzeko unea dela uste dugu.

Haurren eta nerabeen bizitzaren zati handi bat kalean gertatzen da, parkeetan (hala izatea positiboa litzateke, behintzat), eta hain zuen ere, kalean edo parkeetan ematen dira heztekotz aukera ugari, harremanak beste era batean eraikitzentzako eta egoera, jatorri zein eredu desberdinaketa familia eta haurren artean loturak josteko abagune pila bat. Gainera, kale-hezitzaleen figurak kalea seguruago egingo luke haur eta nerabeentzat, espazio publikoa haienago eginez.

Beraz, uste dugu une egokia dela gazteleku eta haurtxokoak balorazioa egitearekin batera, kale-hezitzaleen figuraren inguruan hausnartzeko.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

## **6.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre educadores de calle.**

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta una interpelación relativa a la figura de los educadores de calle a Cristina Lagé, concejala delegada de Educación, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

### **JUSTIFICACIÓN**

La ciudad cuenta con una red de gaztelekus y haurtxokos, que se distribuye en la mayoría de los barrios de la ciudad. Es evidente que el hecho de que las niñas, niños, adolescentes y jóvenes de cada barrio tengan espacios físicos de referencia es muy positivo; en San Sebastián no vamos por mal camino en este sentido, aunque de vez en cuando es imprescindible hacer una valoración de la oferta (horarios, actividades, participación...).

Pero esta interpelación pretende enfocarse en una figura diferente de ocio y dinamización de la infancia, la adolescencia y la juventud, más allá de los mencionados espacios físicos. De hecho, en el pasado han existido educadores de calle en San Sebastián, a pesar de que hoy en día no ya no haya. Quizá en aquella época la decisión de eliminar la figura de los educadores de calle se debió al objetivo de reforzar los gaztelekus y los haurtxokos. Sin embargo, creemos que es el momento de volver a poner el foco en esta figura, ya que ha transcurrido tiempo desde que se adoptó dicha decisión.

Gran parte de la vida de los niños, niñas y adolescentes se produce en la calle, en los parques (al menos sería positivo que así fuera), y es precisamente en la calle o en los parques donde se dan muchas posibilidades de educar, de aprender a construir las relaciones de otra manera y de crear vínculos entre familias y niños y niñas de diferentes situaciones, orígenes y modelos. Además, la figura del educador o educadora de calle haría más segura la calle para niños, niñas y adolescentes, haciendo que el espacio público sea más propio para los menores.

Por lo tanto, creemos que es un buen momento, junto con la valoración de gaztelekus y haurtxokos, para reflexionar sobre la figura de las educadoras de calle.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:



- Zer dela eta ez dugu egun kale-heitzailerik Donostian? Zein hausnarketa egiten du Udal Gobernuak gaiaren inguruan?
- Zein da Gazteleku eta Haurtxoko ereduaren balorazioa? Hirian gune garrantzitsuak diren arren, ez al da ikusten agorben zantzurik, edo berrikuntza beharrik?
- Zer da hirian gune desberdinan ditugun heitzailleen aldetik jasotako iritzi gazteleku eta haurtxoko inguruan? Ateria al da heitzailleen aldetik kale-heitzailleen inguruko hausnarketari? Eta eskolen aldetik? Eta gurasoen aldetik?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Izar Hernando Ibero  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Izar Hernando eta Cristina Lagé andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(11:06ean Jon Insausti jauna irten da eta Eneko Goia Alkatea bertaratu da)

#### 7.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako udal kirolegiaren egoera dela eta.

Itziar Iturri andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Altzako kirolegiaren egoerari buruzko interpelazioa egiten dio Iñaki Gabarain jaunari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean eman ditzan.

#### JUSTIFIKAZIOA

Otsaileko batzordeetan Altzako kirolegiak zituen itoginei eta ur filtrazioei buruz galduet genuen. Bertan Kiroletako eta Bizieta Osasuntsurako zinegotzi-ordezkarri Gabarain jaunak azaldu zuen arazoak identifikatuta zeudela, konponketa lanak hastear zeudela eta erreklamazio formal bat jarriko ziola Udal Gobernuak kirolegia eraiki duen Aldi Baterako Enpresa Elkarteari.

Jakin dugu matxura baten ondorioz martxoko egun

- ¿Por qué no tenemos actualmente educadores de calle en San Sebastián? ¿Qué reflexión hace el Gobierno Municipal sobre este asunto?
- ¿Cuál es la valoración del modelo de gaztelekus y haurtxokos? Aunque son centros importantes en la ciudad, ¿no se observan indicios de agotamiento o necesidad de renovación?
- ¿Cuál es la opinión recibida por parte de educadores y educadoras que tenemos en los diferentes espacios de la ciudad sobre los gaztelekus y los haurtxokos? ¿Han hecho alguna mención o reflexión relativa a los educadores de calle? ¿Y por parte de los centros escolares? ¿Y por parte de las familias?

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Izar Hernando Ibero,  
Concejal del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen las Sras. Hernando Ibero y Lagé Manich, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 11:06 se retira el Sr. Insausti Maisterrena y se incorpora el Sr. Alcalde Goia Laso)

#### 7.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación del polideportivo municipal de Altza.

La Sra. Iturri Arrazola da por leída la siguiente interpelación:

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al sr. alcalde, Eneko Goia Laso, relativa a la situación del polideportivo municipal de Altza, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a la Personas.

#### JUSTIFICACIÓN

En las comisiones de febrero preguntamos por las goteras y filtraciones de agua que sufría el polideportivo de Altza. En dicha ocasión, el señor Gabarain, concejal delegado de Deportes y Vida Saludable, explicó que los problemas estaban identificados, que se estaban empezando las obras de reparación y que el Gobierno Municipal interpondría una reclamación formal a la UTE que ha construido el polideportivo.  
Hemos tenido conocimiento de que un día de



batez kirodegia itxita egon dela.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta egon zen itxita kirodegia martxoaren 18an? Erlaziorik ba al du aipatu matxurak otsaileko batzordeetan eztabaidatu genituen arazoekin?
- Hasi al dira konponketa lanak? Hala bada, noizko espero da lanak burutzea? Ez badira oraindik hasi, noiz hastea espero da?
- Konponketak egin ahal izateko beharrezkoa izango al da kirodegia ixtea?
- Jarri al du Udal Gobernuak martxoko batzordeetan aipatutako erreklamazioa? Jaso al du Udal Gobernuak erantzunen bat kirodegia eraiki duen Aldi Baterako Enpresa Elkartearen aldetik?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean

Itziar Iturri Arrazola  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Itziar Iturri andreak eta Iñaki Gabarain jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Eguneroakoan grabatu dira.

#### **8.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Larramendi eskolaren eraikinari buruzkoa.**

Izar Hernando andreak hurrengo galdera irakurritzat eman du:

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, Larramendi eskolako eraikinari buruzko galdera egiten dio Cristina Lage Hezkuntzako zinegotziari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

#### **JUSTIFIKAZIOA**

Larramendi eskola, beste hainbat eskola bezala, aldaketa prozesu baten erdian dago, eta Antiguan dituen bi eraikinetako bat ("Seminarioa" ez, behokoa) utzi egingo du datorren ikasturtekit aurrera, Ibaetara mugitzeko. Ordea, eskola horretako patioa Jakintzako ikasleek ere erabili

marzo el polideportivo ha permaneció como consecuencia de una avería.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo estuvo cerrado el polideportivo el 18 de marzo? ¿Tiene alguna relación con los problemas que se debatieron en las comisiones de febrero?
- ¿Se han iniciado las obras de reparación? En caso afirmativo, ¿para cuándo se prevé la ejecución de esas obras? Si aún no se han iniciado, ¿cuándo se espera que comiencen?
- ¿Será necesario cerrar el polideportivo para poder realizar dichas reparaciones?
- ¿Ha interpuesto el Gobierno Municipal la reclamación mencionada en la comisiones de marzo? ¿Ha recibido el Gobierno Municipal alguna respuesta por parte de la UTE que se encargó de la construcción del polideportivo?

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Itziar Iturri Arrazola  
Concejala del grupo municipal EH BILDU"

Intervienen la Sra. Iturri Arrazola y el Sr. Gabarain Gaztelumendi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

#### **8.- Pregunta, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el edificio de la escuela Larramendi.**

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente pregunta:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del vigente artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta a la relativa al edificio de Larramendi Ikastetxea a la concejala de Educación Cristina Lagé, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

#### **JUSTIFICACIÓN**

Larramendi Ikastetxea, al igual que otros centros escolares, se encuentra en medio de un proceso de cambio y dejará uno de sus dos edificios en el Antiguo (no el del Seminario, sino el de abajo) a partir del próximo curso para desplazarse a Ibaeta. Sin embargo, el patio de esta escuela ha



izan dute orain arte, Jakintzak ez duelako horrelako instalaziorik eraikin handian.

Gauzak horrela, zentzuzkoa da Jakintzako langileak eta gurasoak kezkatuta egotea Larramendi eskolaren aipatu eraikinarekin, beste erabileraren bat ematea erabakiz gero patiorik gabe geldituko bailirateke Jakintzako ehunka ikasle.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

- Zein dira aipatutako eraikinarekin dauden aurreikuspenak, Udal Gobernuak dakiela?
- Ba al du Udal Gobernuak aipatutako eraikinaren jabearekin interlokuziorik? Eta Jakintzako zuzendaritzarekin?
- Eraikina erabiltzen jarraitu ahalko dute Jakintzako ikasleek?
- Eraikina erabili ezin izatekotan, zein izango da Udal Gobernuak Jakintzari eskainiko dion alternatiba?

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean"

Izar Hernando Ibero  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Izar Hernando andreak eta Eneko Goia Alkateak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(11:15ean Eneko Goia Alkatea irten da)

**9.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**9.1.- Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Txapurreneko parkour eta kalistenia gunea dela eta.**

Izar Hernando andreak hurrengo galdera azaldu du:

"Itziar Iturri Arrazolak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Txapurreneko parkour eta kalistenia guneari buruzko galdera egiten dio Iñaki Gabarain zinegotzi jaunari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

sido utilizado hasta ahora por el alumnado de Jakintza, ya que no dispone de este tipo de instalaciones en el edificio grande de arriba.

Teniendo en cuenta dicha situación, es razonable que tanto el personal de Jakintza como las familias del alumnado estén preocupados por el citado edificio del colegio Larramendi, ya que si decidieran darle otro uso, cientos de alumnas y alumnos de Jakintza se quedarían sin patio.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta las siguientes preguntas:

- ¿Cuáles son las previsiones que tiene el Gobierno Municipal con respecto al citado edificio?
- ¿Tiene el Gobierno Municipal alguna interlocución con el propietario del citado edificio? ¿Y con la dirección de Jakintza?
- El alumnado de Jakintza ¿podrá seguir utilizando el edificio?
- En caso de imposibilidad de uso del edificio, ¿cuál será la alternativa que ofrecerá el Gobierno Municipal a Jakintza?

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Izar Hernando Ibero  
Concejala del grupo municipal EH BILDU"

Intervienen la Sra. Hernando Ibero y el Sr. Alcalde Goia Laso, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 11:15 se retira el Sr. Alcalde Goia Laso)

**9. Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**9.1.- Pregunta, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la zona de parcour y de calistenia de Txapurrene.**

La Sra. Hernando Ibero presenta la siguiente pregunta:

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del grupo municipal de EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta al concejal delegado Sr. Iñaki Gabarain, relativa a la zona de parcour y de calistenia de Txapurrene, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.



## JUSTIFIKAZIOA

Udaleko webguneko albisteen atalean 2024ko urtarilean Txaparrene inguruau parkour eta kalistenia gune bat eraikitzeko lizitazioa laster egingo zela argitaratu zen.

Gune horretan hainbat kirol kantxa daude, eta horietara iristeko eskailerak jaitsi beharra dago.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako GALDERA hauek egiten ditu:

- Kontuan izan al du Udal Gobernuak irisgarritasuna Txaparreneko kirol gune berriaren proiektua diseinatzerakoan?
- Posible izango al litzateke parkour eta kalistenia gunea eraikitzen denean, bertara heltzeko malda bat jartzea, gurpil-aulkian doazena edo eta haur-aulkiekin doazen erabiltzaileak gune horretara iris daitezen? Horrela gainerako kantxetara ere irisgarritasuna bermatuko litzateke.

Donostian, 2024ko apirilaren 5ean”

Itziar Iturri Arrazola  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

Izar Hernando andreak eta Iñaki Gabarain jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(11:17an Juan Karlos Izagirre jauna bertaratu da)

## JUSTIFICACIÓN

En enero de 2024 se publicó, en la sección de noticias de la página web del Ayuntamiento, una noticia en la que se comunicaba que en breve se iba a proceder a la licitación de la construcción de una zona de parcour y de calistenia en la zona de Txaparrene.

Esta zona dispone de varias canchas deportivas, a las se accede bajando por unas escaleras.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta las siguientes PREGUNTAS:

- ¿Ha tenido en cuenta el Gobierno municipal la accesibilidad en el diseño del proyecto del nuevo espacio deportivo de Txaparrene?
- Cuando se acometa la obra de la zona de parcour y de calistenia, ¿se podría construir una rampa de acceso a dicho espacio para que las personas que hacen uso de la silla de ruedas o que van con silla de niños puedan acceder a él? De esta forma, se garantizaría también la accesibilidad al resto de canchas.

San Sebastián, 5 de abril de 2024

Itziar Iturri Arrazola  
Concejala del grupo municipal EH Bildu”

Intervienen la Sra. Hernando Ibero y el Sr. Gabarain Gaztelumendi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(A las 11:17 h se reincorpora el Sr. Izagirre Hortelano)

Eta bestelako aztergairik ez dagoela, batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko goizeko hamaiak eta hemeretziaren bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztien FEDE EMATEN DUT.

O.E./Vº Bº  
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Cristina Lagé Manich

Y no habiendo más asuntos, la presidenta declara terminada la sesión a las once horas y diecinueve minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, LA SECRETARIA, DOY FE.